


www.noaia.com

N u !



Mundu bat
Sagardo Egunean



Etorkizuna

Lanbide Eskolan hasten da

ALKARTASUNA KOOPERATIBA



Lehengo produktuez gain...

Zeraingoak:

Mermeladak

Dultzeak

Ukenduak

Lekorrak

Diabetikoentzako fruktosa dun mermelada!

Ugarte Industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14

E-mail: alkartasuna@fcae.org

Gure Pakea

**Bokadilo eta plater konbinatu
ederrak izango ditugu jaietan!**



Zumartegi Poligonoa / Aitzezara kalea, 4
Telf: 943 36 60 49



*Kontzertuak asteburutan :
Jazz, Blues eta Folk*

*Taberna giro paregabea lagunekin
egoteko*

*Jatetxea janleku zabal eta erosoarekin
bodak, komunioak eta agur afariak.*

5 zenbakia 20170 Usurbil
Telf.: 943 360 376

Txirrikitutik

Laster sartuko gara ekainean eta, urtero bezala, jai giroan murgiltzen hasiko gara (usurbildarrok dagoeneko hasiera eman digun arren...). Santixabelak uztailean badira ere, ondoko argazki hau aukeratu dut 1982an herriko gazteek egindako lan eder hau gogora ekarriz.

1982ko jaietako egitarauan zehaztu bezala, mural ikusgarri hau uztailaren 1ean egin zela jakin dut. Goizeko 10:00etan hitzordua jarri eta egun osoz "Mural Herrikoa" margotzen jardun zuten herriko gaztetxoek. Irudi, sinbolo eta letren artean, muralaren erdialdean "Usurbilgo Herri Jaiak" irakur daiteke.

Hamabi urte pasa badira ere, ziur nago bertan parte hartu zutenek mural honetaz gogoratuko direla. Aurtengo jaietan horrelakorik ikusteko aukerarik izan ote da?

Zalao Arnaiz Ibaguren



Egile ezezaguna, 1982.07.01. Jabetza: Noaua!K.E.
Kaleberri, Santixabelak

OHARRA: Herriko argazki zaharren bat etxean baduzu eta NOAUA!ko Txirrikitutik atalean ateratzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan gaude. 943 360 321 telefonoan edo fototeka@noaua.com e-postan aurkituko gaituzu.

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

elkartea@noaua.com

erredakzioa@noaua.com

publizitatea@noaua.com

Web orria: www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Maialen Saez

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oskar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbiet, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE **4. ORR.**

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN **6. ORR.**

EKAINAREN 2AN HASIKO DA ASTE BERDEA **10. ORR.**

USURBILGO LANBIDE ESKOLA **14. ORR.**

Martxan da datorren ikasturte-rako matrikulazio kanpaina. Aitzaki honekin, Lanbide Eskolara hurbiltzeko aukera aprobetxatu dugu.



PLIS, PLAS, TXALO TA JOLAS **16. ORR.**

GOMAZKO PALA TXAPELKETA AGINAGAN **17. ORR.**

DBH 3. MAILAKOAK, ZERAINEN **18. ORR.**

EKITALDI GARRANTZITSUENAK **22. ORR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak
Euskal Herrira!

AZALA

Kalitatearen aldeko apostua egin du Usurbilgo Lanbide Eskolak

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321

Lehen graduan jarraitzen du Ramon Uribe usurbildar presoak

Euskal presoen eguneroko bizitzan nahiko ohikoak izaten dira eskubide murrizketak, gradu aldaketak, bisiten debekua, espetxe aldaketak... Baina martxoaren 11tik hona, are eta gogorragoa da egoera espetxeetan. Langraitzeko espetxean den Ramon Uribe, esate baterako, lehen gradura pasa zuten Madrilén izandako atentatuaren ostean. Oraindik egoera horretan jarraitzen du.

Ramon Uribe beste hainbat herritarrekin batera atxilotu zuten duela 10 urte. Ordutik espetxean da Kalezargo bizilaguna. Azken urteak, ordea, Arabako Langraitzeko espetxean egin ditu. Baina martxoaren 11tik hona, lehen graduan dago Ramon. Egun batzuetako kontua zirudiena, uste baino gehiago luzatzen ari da. Bere etxekoek adierazi digutenez, inolako arau hausterik edo jokabidearen bila-kaera okerrrik arrazoitu gabe, graduz aldatu egin zuten. Honen ondorioz, dagozkion eskubideak dezente murriztu dizkiote.

LAU ORDUKO PATIOA

Ainara Uribe Ramonen iloba da, eta bere esanetan, "orain patioan 10 presoekin baino ez da egoten, eta horietako bi bakarrik dira politikoak". Lehen gradura pasa dutenenik, lau orduko patioa baino ez du. Ainara Uribek dioenez, "patioa oso txikia da, eta iluna. Ezin dute kiroldegira joan eta ez da ez aterperik, ez gelarik, ez komunikazioa".


Bi orduko bisita eskubidea du. Ostiralean, bat; larunbatean, bestea.

Baina biak egun batean akumulatu ditzake. *Bis a bis* izeneko bisitak, hilean behin baino ez.

MARTXOAREN 11KO ATENTATUAREN ONDORIOAK

Preso sozialekin eta funtzionarioekin, orohar, arazo dezente izan zituzten euskal preso askok. Ramon Uribek eta Langraitz espetxeko presoek, ordea, ez omen zuten gainontzeko espetxeratuekin gatazkarik izan. Ainara Uribek aitortu digun moduan, martxoaren 11n Madrilén izandako atentatuaren ondorioz, "funtzionarioak nahiko zakar jarri ziren, baina atentatua argitzen hasi eta berehala presoekiko tratua erabat aldatu zen".

Duela gutxi, Ramon Uribek berak eta gainontzeko presoek pairatu duten tratua salatu du Etxerat! erakundeak Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordean.



RAMON URIBE (ESKUBITARA) ETA USURBILGO BI LAGUN AGERI DIRA, ESPETXEAN DUELA GUTXI EGINIKO ERRETRATU HONETAN.

Hamar urte kartzelan

"94/6/2. Joxe Domingo Aizpurua Guardia Zibilaren esku utzi zuen polizia frantsesak. Tortura latzak jasan ondoren, hamalau egun inkomunikaturik egon zen.

Hurrengo egunetan Guardia Zibilak hamabi usurbildar atxilotu zituen eta hauetatik hiru (Luis Gorriti, Xabier Pikabea eta Ramon Uribe) espetxeratuak izan ziren. Tortura eta tratatu txarren salaketa ugari izan ziren eta ikerketa batzuk ere hasi, hasi ziren, gerora salaketak

artxibatu baziren ere.

Bestalde, CPT (Comité pour la Prévention de la Torture) Europako Kontseiluko erakundeak, atxilotuta zeuden zenbait usurbildar ikusteko eta galdekatzeko aukera izan zuen. Gobernu espainiarrari igorri zion informe bat landu zuen atxilotuen egoera azalduz".

"Herriak badaki, Usurbilgo memoria errepresioa 1973-2002" liburuko Kronologiatik hartutako pasartea.

L T ILL E

ITU GINTZ G SET E GINTZ
INST L KUNTZ K

IZTTTX K L F . (3) 3 2 35-3 33
FHF M I 21



Etx st k l , 3
T E 33 11

MAHUKA

Gz n t m kum zk n
m k rr uzt
h m n urktuk uzu



ALOÑA
LOIDI

Txokoalde

Eguraldiaz

Maiatza bukatzeaz den honetan egin dituen eguraldi onak hizpide, esan Sagardo Egunean hobe ezina den eguraldia egin zuela eta horri lotuta, jende asko inguratu zela Usurbila Sagardo Egunera. Jende guztia oso gustura ikusten zen; haurrak jolasean, helduak algaraz, beste batzuk lanean jo eta ke, gaztetxoak zein hain gaztetxoak ez direnak postuz postu sagardoa dastatzen, etab. Batek baino gehiagok ziur biharamun ederra izango zuela astelehen goizean, lanera joateko jeikitakoan.

Esan beharra dago baita ere, baserritarrak ez daudela oso gustura, zeren entzun dudanez, eguraldi hauek goizago hasi behar omen zuten, dagoeneko landatuta behar zuten landareak oraintxu jarri baitituzte eta beranduago jarri direnez, bada, beranduago jaioko dira.

Baserritarrak oso gustura ez badira ere, hondartzara joan ohi denarentzat paregabeko

egualdiak ari ditu egiten. Esan didatenez pasa den igandean hondartzan jende asko omen zen, bai Oriokoan, bai Donostiakoan eta baita Zarautz eta Getariakoan ere. Bestalde, mendia gustoko dutenek ere mendia gozatzeko egun oso egokiak izan dituzte, zoragarriak benetan zelai, harri, zeru eta urak beren ingurunean dastatzeko.

Bada ordea, eguzkiaren gauzarik onena itzala dela esaten duenik eta hoiek ere, itzaletan egiten duen haize freskoa hartzeko parada izan dute.

Egun hauetan lana egin behar izan dutelako, edota beste edozein arrazoigatik gozatzeko aukerarik izan ez dutenek uda osoa dute aurretik, izan ere udaberrian gaude oraindik eta komunikabideek iragarri dutenez, aurreko urtean baino bero handiagoak izango omen ditugu 2004-ko udan. Beraz, presta gaitezen guztiok uda bero-bero bat pasatzeko.

Galdera errealak



ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Eta ez naiz ezkontza errealari buruz idazten ari-tuko, nahiz eta honek ere joku asko eman dezaken. Niri ez. Niri beste batek ematen dit jokuak. Guztiz bestelako joku batek. Futbol jokuak. Eta ohikoa ez izan arren, Errealari buruz idatzi nahi dut. Neurri batean, nire amorrua askatzeko eta berrundik ihes egin dezan, behingoz.

Nork ez du gipuzkoarena den taldearen denboraldi txarraren berri? Eta nork du hamar hilabetetan zehar gaizki egin diren gauzen eginkizuna?

Jokalariek? Iazko berberak izanik aurtien ez dutelako iazko errendimendua errepikatu? Ez dutelako iaz bezainbat lasterka egin? Batzuk ez direlako iaz bezala zaindu? Antiguotarraren aferak kalte handia egin dio ezker hegalarari. Añorgatarrak kritika txarrak pairatu dituelako, eta Bergarako Gazteluren semeak ez duelako, batekin ala bestearekin, orain arte bezala jokatu. Zalantza izpirik gabe, ez dio batere onik egin txuriurdinen jokuari.

Entrenatzailea ote errudun? Iaz jakitun zena ahazturak jota ote dugu?! Ezetz esango nuke. Aurrendenboraldia, iaz eta aurtien, oso-oso antzekoa izan da. Iaz bezain ongi zuen guztia prestatua. Edo, hobe, agian; huts egin zezaketen postuetarako joka-

lari berriak baitzeuzkan. Ala, akaso, hain ongi zehaztua izatearen monotoniak hautsi du taldea?

Bazen, ordea, frantziarrentzat horren ezaguna ez zen beste zerbait: Txapeldunen Liga. Bi txapelketa garrantzitsutan jokatzeko jokalariei ahalegin gehiago eskatzen die, edota beste aukera, jokalariei gehiago eduki eta ahalegin gutxiago egitea. Txapeldun izan ohi direnek bigarren talde mota izan ohi dute. Eta donostiarrei, halaber, jokalariek gaizkitu zitzaizkiotenean bi aldiz ordaindu behar izan du. Egia..., entrenatzaileak eta zuzendaritzak ez zuten neurri berezirik hartu. Utzita dituen jokalariek berreskuratu —eta ez alderantziz—, harrobia loretu...

...zuzendaritza izan al daiteke, zelaian gertatzen dena aldatzeko ezgauza izanik, lortu emaitza txarren erantzulea? Ez dakit, baina etengabe proiektu berriak aurkezten ibili den presidentek ere ez du batere txukun jokatu. Batez ere, bazkideekin. Iazko garaipenekin sortutako aparrak iraun zuen bitartean, zertaz ez zitzaigun baliatu? Eta bazkideok azken partidara arte ixilik. Dagoena dagoela buru, koloreek gehiago erakartzen gaituztelako.

Gora une eder baterako irtenbidea eman dakigukena!

Udaren etorrera, jaien hasiera

Agur t'erdi denoi. Udaren etorrera, jaien hasiera! Ez al da horrela?

Usurbildarrontzat, behinik behin, horrela da, uda etorri aurretik maiatza aldean entrenamentuak egiten hasten baikara; Andatza Eguna, San Ixidro Jaia, kontzertua, Sagardo Eguna... Ez da ez makala maiatza usurbildarrontzat.

Gogotsu hartu ohi ditugu denok ere herriko jai eta ospakizunak baina berauen antolaketaren inguruan aipamen txiki bat egin nahi nuke eta txoko hau aprobeixatuko dut.

Jaiak ospatzen direnean izugarritzko ohitura dugu kritikak egiteko, nola aldeko zein kontrakoak eta hori ona da, bizi gaudenaren seinale baita. Baina ez nuke kritika horiek bere horretan gelditzerik nahi. Geroz eta gehiagotan entzuten ditut "ez dugu erreleborik topatzen", "gazteak ez dute parte hartzen" eta horrelakoak. Noski eta horrelako esanen atze-

tik "aurten azken urtea", "jada nekatu gara" eta horrelakoak.

Beti gazteengan jartzen dugu begirada horrelakoak esaterakoan edo entzundakoan baina ez nago guztiz ados. Gazteek horrelako saltsetan ibiltzeko eta aritzeko gogoia izan beharko lukete baina helduek ere badute zer eginik eta zer erakutsirik gazteei. Jakinekoea da herriko jaiak herritar guztientzat behar lutekela izan eta horretan denok parte hartu beharko genuke, bakoitzak ahal duen mailan baina denak, haur, gazte, heldu zein adineko.

Garbi daukadan gauza bat zera da, antolatzen ari denari min egiten diola "etzion eze itxurazkorik aurtengo festetan" edo "gaztiak gaztiantzako festak bakarrik antolatzen dizkin" eta horrelakoak entzuteak. Beraz, norberak egin diezaiozun kritika geure buruari eta horren arabera hitz egin eta ekin dezagun.

Aio eta ondo izan!

Kaleazar



MAIDER
MAKAZAGA

Amets gozoa zapuztuz

Esaten dute ametsak begiak irekita egitea ez dela izaten batere ona, nik lotan nagoela egin dut, eta oso polita gainera. Orohar, gure auzoa dena berrituta ikusi dut. Auzoan dagoen plaza edo parkea dena berrituta ikusi dut, tobo-gana, txirristra, kolunpioa eta tresna berriak kolore biziz apainduta, inongo trikimailu guztiak. Txikitxoentzat koltxoneta ederrak haurrak eta gaztetxoak saltoka beren gainean. Lore toki bikainak ere udaberriko lore kolore politez hornituta. Atxegaldeko kale kantoï guztietan ondo landutako jardín dotoreak, zuhaitz eder eta bikain batzuen bebesean hortik gertu eserlekuak, kolore berdez margoturik eta errespaldo egokiarekin non nahi zeuden. Tamarindo eder batzuen azpian atsedena hartzeko gonbidapena eskeintzen zuten beren itzalak; aiton-amon eta zaletuentzat edo edozein auzotarrentzat edo kanpokoentzat.

Auzoko espaloiak irristarik egiten ez zutela zeuden ipiniak eta bertan ibiltzeko segurtasuna eskaintzen zuten batez ere euria ari duenean. Zakar ontziak dauden inguruan garbitasuna zen

nabari eta jendearen ardura handiz baztarrak txukun zeuden eta udaberriko giro ederrena zegoenez dizdiratsu zegoen auzoa. Hau dena festa giro alai batekin trikiti soinuak eraginez auzoko zenbait gazteen zaletasunez eta beren umore onenarekin.

Baina esnatu eta auzora irten naizenean beste-lako egoera somatu dut, agian egunero bizi duguna, aste bete eguraldi beroekin ibili gara, eta ondoren euri piska bat egin du eta hemen ikusi dut emakume bat, irrist egin eta lurrera erortzen Truke botikaren ahurrean. Oso irristakorrak gelditzen dira euria egiten duenean eta arriskutsuak daude ibilbideak. Badira lehenago eroritako eza-gun batzuk ere. Bestetik, eserlekurik ez dugu auzoan plazan izan ezik eta loreto kirik ere ez. Aurretik ale gehiagotan aipatutako kolunpioa ere konpondu gabe dago haur txikientzat.

Beraz nere ametsa ondo zapuztuta gelditu da. Eta galdetzen dut, hain zaila ote da baharrezkoa deritzogunari konponbidea ematea auzo honetan?

Atxegalde



MARIA
JESUS
URBIETA



Santueña

AGUSTÍN
ESNAOLA

Auzoa ezaguna da

Auzoa ezaguna da gure inguru hauetan. Gure auzotik jende asko pasa da, bai bertan bizi izan delako baita bertatik beste auzoetara joateko pasa delako edo ezkontza baten aitzakiarekin, gure zorrotzako zubiaren gainetik pasa delako, San-Estebango ermitara joateko.

Donostiako suhiltzaileetako oposaketetan orain dela zortzi urte, Donostia inguruko kale, auzo, txoko eta beste zenbait lekuetako galderak egin zituztenean, gure auzoa non zegoen galdetu zuten. Noski galdera ez zen erreza izan gehiengoentzat, bai ordea oposaketa haietara aurkeztu zen batentzat, bertan hainbat ordu igarota zegoelako. Geroztik Donostiako suhiltzaileak ezagutzen dute ondo gure auzoa, ez zaie ezezaguna egingo hurrengo batean auzoaren izena entzuten dutenean.

Auzoa, bidegurutze bat dela esan dezakegu. Herriko beste auzoetara joan nahi duenak, gehiengoak, bertatik pasatzen da. Zubietara joateko, Txokoaldera joateko, San Estebanera joateko. Baita, oinezkoentzako edo korrika egitera ateratzen denentzako, gehiengoak edo Txokoaldera trenbide zaha-

rretik edo Zubieta aldera hartzen dutelako, guztiak hauek zorrotzako zubitik pasa behar dira eta gure auzoa dela medio bertatik pasatzen dira. Lasarte-Oriako hainbat biztanleentzat, edo hemen bizi izan delako edo bertara oinez etortzen direlako, ezaguna da auzoa.

Orain beste era bateko bisitariak baditugu ere, gure auzoan ostalaritzan mugimendu asko ibiltzen da, eguneko menua Tragoxkan, sagardo garaian Aialde Berrin, eta bestalde perritxikoak nahi badituzu, Arrozpide banaketak, ezin da ahaztu, betidanik ezagutu dugun harategia eta denda, Usurbilen ireki zen lehena, Esnaolarren harategia.

Bada arrazoi ugari, gure auzoa ezagutzeko, nahiz eta bertatik pasa bakarrik. Auzoak ba duela, aspalditik, bere berezitasuna, bere xarma, nahiz eta fama txarra jarri izan betidanik usurbildarren artean. Gure auzoa biltzeko lekua izan da beti, kultura ezberdineko jendeen uztarketa gertatu da eta gertatuko da.

Batetik edo bestetik, arrazoi ezberdinak direla medio, gure auzoa ezaguna da.

Udaberria



Urdaiaga

NEREA
AIZPURUA

Agur bero bat guztioi San Esteban alde honetatik!

Andatzako magal honetan, gauzak bere horretan jarraitzen dutela aipatu beharrean aurkitzen naiz.

Sagardo Eguna ere pasa zaigu (eguraldi ona lagun) eta maiatza ere amaitzeaz da... eta konturatzeko, uda gainez izango dugu: eguraldi ona, festak... eta ikasleok, hiru hilabeteko oporraldia... ezta txarra ez!

Udaberria triste samar hasi bagenuen ere, kostata, baina hasi dira eguraldi ederrez jantzi-tako egun epelak.

Gurera ere eguraldi ona aprobetxatuz, hainbat eta hainbat hurbiltzen dira: batzuk eguzkia hartzera, beste hainbat egun osorako etortzen dira "sonbrilla" eta guzti; eta beste batzuk ordea, nahiago izaten dute parkeko zuhaitzpean, itzalpea aprobetxatzea.

Belardiak ere lorez beteak ditugu jada eta



sagastiak ere zuriz jantziak dira dagoeneko. Urte garai honetan eder egoten da gure auzoa.

Gaiaz aldatuz, badirudi San Estebango bidean argiak jartzeko eskaera aintzat hartua izan dela azkenean. Ea lehen bait lehen hasten diren.

Eta gaurkoz, besterik ez gainalde honetatik. Ondo izan eta hurren arte!

Bittoriano organista

Parrokian ez dira izan organista asko izan. Agustin Furundarena Eizakoa, bere biloba M^a Asubek ere urte asko egin ditu (orain dena utzita badago ere) eta Bittoriano Pikabea. Agustin izan omen zuen maisu, eta hamasei urte zituela hasi omen zen organoa jotzen. 46 urte bete ziren maiatzaren lehenengo aste bukaeran, (atzo goizean dirudi) nola pasa diren urteak. Lan bikaina egiten du, larunbatero eta igandero orain dela urte pare bat arte eta igandero geroztik, baina hiletak eta igande edo jai bereziak ere badira tarteka eta nahiz eta beti etortzerik izan ez, gehienetan hor izaten degu. Eta elizara joaten garenok badakigu ze hutsune tristea den soinurik gabekoa, alaitasunezko jantzia baita elizkizunerako.

Tarte honetatik zoriondu nahi dut Bittoriano, egiten duen lanagatik eta animatu aurrerantzean ere horrela segitzeko. Gainera, orain jubilatuta dago lanetik eta aukera eta denbora gehiago izango du. Esker mila eliztar guztien partetik.



Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

Elefanteen artean dantzan

Erbinude andrea gelan sartu eta, txifloari haize emanez, erne jarri ditu denak. Elefanteak, koartzak, bazterretan dabilzan katagorriak... denak ixildu, eta hari begira jarri dira. Ixiltasun labur bat.

Ondoren, erbinudearen ulua elefante ilekizkurari: ez al nizun esan, ba, kirol zapatekin ezin zela etorri dantzara! Arraioa! Ederra duzu azala! Ez etorri gero apretarik gabe hurrengoan!

Hala ere, elefantea, lasai –zazpi azaleko larrua du–, behatzarekin hazka hasi da kizkur artean. Hau besterik ez zaio bururatu: Badakizu, manifestaziorako pankartak egiten ari nintzela pinturarekin zikindu zaizkit... Eta segituko zuen aitzakia aitzakiaren gainean, erbinude andrearen begiratu zorrotzarengatik ez balitz...

Orduan, eskuaren keinu txiki batez sarrera eman dio soinu txikiaren musikari. Triku andrea hasi da jotzen. Gaztetan irakasle italiar batekin aritu zen ikasten –il maestro–, eta geroztik ez da sekula hasiko Va! ozen bat jaulki gabe. Eta hasi da fandangoa.

Bueltak ematen hasi baino lehen, erbinude agintariak geldiarazi du dantza eta elefante tunanteari zuzendu zaio: Zer, atzo parranda ala! Elefanteak ezetz eta ezetz... Negargarria da ajea gainetik ezin kenduz ibili eta ajerik ez duzula horren temati aritu behar. Eskerrak beste elefanteak –batean ia– hasi zirela esaka denek ikusi zutela etxera bidean goiz erretiratzeko.

Erbinudeak ezin du elefante sesiante guztiekin batera, eta astirik eman gabe keinua berrituz, hasi da musika.

Oraingoan fandangoa osatu dugu, kostata hala ere. Akatsen zerrenda osoa errezitatzen hasi zaigu erbinude sarjentoa. Bitartean koartza berrietako batek elefante bati: Badakizu. Gu orain dela gutxi hasi gara, bi hilabete... Eta elefanteak: gu orain dela bost. Koartzak onespen imintzioa egin du. Eta elefanteak, oso duin, ez dio esan bostak urteak direla.

Horrela jarraitu dugu beste ordu betez, harik eta erbinudea konturatu arte elefanteak tabernara begira ari direla...

Zubiet



**PELLO
ARANBURU**

Ekainaren 2an hasiko da Aste Berdea

Ekainaren 5ean ospatuko da Ingurumenaren Nazioarteko Eguna. Honi lotuta, Aste Berdea antolatzea erabaki du Udalak. Ingurumen arloetan kezkatzeko gaituzten hainbat gai landuko dira ekainaren 2tik aurrera. Imanol Zubiondo nekazaritza eta ingurumen gaietarako zinegotziak eman dizkigu ekimen honen xehetasun guztiak.

Zein da Aste Berdea izeneko egitasmo honen helburu nagusia?

Ekimen honen helburua, Usurbilen kezkatzeko gaituzten landa lurereko eta ingurumen arloko gaien inguruan informazio eta zabalkuntza gune bat sortzea da, eta bertan, herrikoen iritzia, usteak eta partaidetza sustatzea.

Hiru hitzaldi interesgarriekin osatuko da Aste Berdea. Zein arlo edo gai nabarmendu nahi izan dituzue?

Gai ugari daude jorratzeko baina auke-
ra bat egin behar izan da.

-Ekoizpen eta produktu ekologikoak. Mahai gainean dugu Kalitatezko Ekoizpena lantzeko ekimena eta baita ere herriar talde baten eskaera zehatza "Elikadura osasuntsua" lantzeko.

-Andatza-Irisasi mendiaren kudeaketa. Honen inguruan ere aspaldidanik jarri dira mahai gainean gure herrian garrantzia handia duen mendiaren kudeaketa-



ASTE BERDEAK NAZIOARTEKO
INGURUMEN EGUNAREKIN BAT EGINGO DU.

ren inguruko kezkak.

-Oria ibaiertzeko hezeguneak. Momentu honetan Eusko Jaurlaritzak inguru hau NATURA 2000 Europako inguru babestuen artean izendatzeko proposamena mahai gainean dago.

Urtero errepikatuko den ekimena izango al da?

Nazioarteko Ingurugiro Egunaekin bat egiteko arrazoiak egun horietan egiten diren beste ekintza eta jardunaldien sinergia bultzatzea da. Ekimen honen errepikatze asmoen inguruan esan, lehenik balorazio bat egin behar dugula eta errepikatze asmoak sendotzen badira honelako ekimen batentzako prozedura egokiena aztertu, gaien aukeratzetik hasi eta astearen ebaluaketa arte.

AURRERA ATERA DA PLAN EKONOMIKO FINANTZIALARIOA

Aurtengo udal aurrekontuan Aribertsio ugari aurrakusi da. Egitasmo horiek guztiak sustatu ahal izateko 1.750.000 euroko mailegua hitzartuko du Udalak. Mailegu hori aurretan amortizatzen hasiko litzateke. Hala ere, mailegua 1.750.000 eurokoa izanda ere, 2004an amortizatu edo kitatuko dena bakarrik 374.340 euro izango denez, defizit egoeran onartu da aurrekontua (1.366.160 euroko defizita). Honi aurre egiteko, Udalbatzak Plan Ekonomiko eta Finantziarioa jarri du martxan.

Plan honen arabera, hiru urteko epean, defizit egoera gaitzitzeko moduan izango da Udala.

Hazienda Batzordean eta Udalbatza Plenoan eztabaida piztu duen gaia izan den arren, plan honek EA, EAJ-PNV eta PSE-EEren babesa jaso du. PP alderdia aurka azaldu da.

ATALLUKO AUZIA, KONPONTZE-BIDEAN

Badirudi argitzen hasi dela Atalluko Auzia. Fagor-Berriola izan da atzera egin duen enpresa bakarra. Ingemar, Akaba, Guifor eta Laser-ken enpresek maiatzaren 21ean egin zuten ordainketa. Honen ondorioz, lur-jabe askok jaso dute jaso beharrekoa. Fagor-Berriolako partzelako lur-jabeen kasuan, denbora gehiago itxaron beharko dute; partzela hori enpresa berri bati esleitu arte.

Hitzaldi interesgarri osaturiko astea

EKAINAK 2, ASTEARTEA

"Andatza Irisasi mendiaren kudeaketa" 19:30-20:00.- "Andatza Irisasiko kudeaketa". Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariaren eskutik.

20:00-20:45.- "Baso kudeaketa". Hitzlaria: Arturo Eloseggi, ekologi irakaslea EHU.

20:45-21:15.- Mahai-ingurua.

EKAINAK 3, ASTEAZKENA

"Oria ibaiertzeko hezeguneak"

19:30-20:15.- "Plaiandiko parke ekologikoa: Itsas ertzeke hezegune baten

berreskuratzea. 1998-2004 bitarteko emaitzak". Hitzlaria: Mikel Etxaniz Aginagalde, ingurumen teknikaria, Ornitologian aditua. Leire Beteta Merino, ingurumen zientzian lizentziatua.

20:15-20:45.- "Oria gazia". Hitzlaria: Arantxa Txintxurreta, biologoa, Herri Natur Taldea.

20:15-21:05.- "Posibilidades de anfibios en el bajo Oria" (erdaraz). Hitzlaria: Alberto Gosa Oteiza, biologoa.

21:05-21:35.- Mahai-ingurua.

EKAINAK 4, OSTEGUNA

"Ekoizpen eta elikadura biologikoak" 19:00-19:20.- "Nekazaritza ekologikoa zertan den". Hitzlaria: Patxi Montero, nekazari ingeniari teknikoa, Biolur.

19:20-21:00.- "Los alimentos biológicos: moda o necesidad" (erdaraz). Hitzlaria: Elena Corrales, "Elena Corrales" medikuntza biologikoko zentrotik.

21:00-21:30.- Mahai-ingurua.

Ekitaldi denak Udarregi Ikastolan. Moderatzailea: Josu Aranberri (kazetaria).

UDARAKO GOIZAK ONDO PASATZEKO...

UDAJOLAS 2004 USURBIL



UDA TXIKI (2-3/3-4/4-5) urte
Adin hauetara egokitutako
ekintzak

UDAJOLAS

UDA GAZTE (8-11) urte
eskurtsio bat, bizikletan ibili,
eskalatu

ORDUTEGLAK

Goizez:
9:00-13:00

UDA ERDI 6-7 urte,
Egunero joku ezberdin bat:
espaziora bidaia, munduari itzulua,
Asterix eta Obelix...

TXANDAK

1goa uztailaren
Setik 16ra.
2.a Uztailaren
19tik 30era.

IZENA EMAN NAHI BADUZU,
DEITU TELEFONO HONETARA:

637 758 710 arratsalde



Izena emateko azken eguna ekainaren 24a
Arduradunak pedagogoak eta monitore esperientziadunak izango dira

www.noaua.com

Usurbilgo ataria

Albisteak, agenda, foroak, inkesta, osasun zerbitzuak, historia, loturak, hemeroteka

The screenshot shows the Noaua website interface. At the top, there's a header with the Noaua logo and navigation links. Below the header, there are several main sections: 'eguraldi iragarpena' (weather forecast), 'Eztabaida FOROAK' (discussion forums), and 'Inkesta' (survey). The 'Inkesta' section is highlighted, showing a survey titled 'Asteon eta NOAUA elkarrekin borritz ere' (Asteon and NOAUA together in the forest). The survey is about the 'Asteon' magazine and the 'Noaua' website. It includes a list of questions and a 'Botoa' (Vote) button. The 'Eztabaida FOROAK' section shows a forum post titled 'Larunbatean San Isidro eguna ospatu zen' (Saturday San Isidro day was celebrated). The 'eguraldi iragarpena' section shows a calendar for the month of July.

Txiki geratu zen herria

Eguerdian, 13:00ak aldera, ez zen jende gehiago sartzen Dema Plazan. Sagardo Eguna, oraindik orain, erakargarri den seinale. Aurten, gainera, inoiz baino lagun gehiago ibili da arratsalde zain gauzez.

Aurtengo Sagardo Egunak eman duenarekin pozik dira antolatzaileak. Bereziki, antolaketa-lanetan jendea fin aritu zelako. Estrainekoz, aurten, bazkaria ez zen Mahaspildeginegin, Agerialden baizik. 150 lagun bildu ziren eta Mahaspildeginegin ez bezala, Agerialden denak elkarrekin bazkaltzeko aukera izan

zuten eta, honi esker, aparteko giroa sortu zen.

Bestetan ez bezala, arratsaldean jende ugari ibili zen herrian. Gau partean ere, tabernak gainezka ziren. Pello Zubeldia udaltzain-buruaren esanetan, arratsaldean jende asko ibili zen, beste urte batzuetan baino askoz gehiago. Uste baino lan gehiago izan zuten arren, ez zen aparteko arazorik izan.

Lehiaketan, lau herritar, hiru asturiar eta Gaztela-Leongo botatzaile bat aritu ziren. Kerman Errekondo izan zen, ordea, botatzaile onena. Urko Manterola bigarren eta Iker Muguruza, hirugarren.



RAMON CAMINO TAULA GAINERA IGO ZENEAN HASI ZEN SAGARDO FESTA.



SAGARDO EGARRIZ IRITSI ZIREN BISITARI GUZTIAK.



DEMA-PLAZAK ITXURA HAU HARTU ZUEN 12:30AK ALDERA.



1



2



3



4



5

1. NOAUA!KO ARGAZKIRAKO BILDUTAKO LAGUNAK.
2. CANTABRIAKO SAGARDOAK JAKINMINA PIZTU ZUEN.
3. LAGUN ASKO ARITU ZIREN SAGARDOA BANATZEN.
4. ETXERAT!EN ALDARRIKAPENAK OZEN ENTZUN ZIREN.
5. HIRU ASTURIAR ETA GAZTELA-LEONGO BOTATZAILE BAT ARITU ZIREN LEHIAKETAN. IRUDIAN, IKER MUGURZA.

ASTE BERDEA 2004

USURBIL

LANDA LUR ETA INGURUMEN ARLOETAN KEZKATZEN GAITUZTEN GAIAK LANDUZ



✿ EKAINAK 2 – 19:30
ANDATZA IRISASI MENDIAREN KUDEAKETA

✿ EKAINAK 3 – 19:30
ORIA IBAIERTZEKO HEZEGUNEAK

✿ EKAINAK 4 – 19:00
EKOIZPEN ETA ELIKADURA BIOLOGIKOAK

✿ LEKUA: UDARREGI IKASTOLA

Kalitatezko prestakuntza eskaintzen du Usurbilgo Lanbide Eskolak

Usurbilgo Lanbide Eskolak jardunaldi irekiak antolatu ditu azken asteotan. Egun horietan, eskolaren eskaintza akademikoa ezagutzeko aukera paregabea izan dute ikasle zein gurasoek. Aurre matrikula egiteko epea, ordea, ekainaren 9an amaituko da.

Zubietan dagoen Lanbide Eskolaren eskaintza anitza da: hezkuntza arautua (ziklo formatiboak), batetik; eta ez arautua (langile edo langabetuentzako ikastaroak), bestetik.

ESKANTZA OPAROA

Hezkuntza arautuari dagokionez, hiru dira ematen diren heziketa zikloak: Fabrikazio Mekanikoa, Mantenimendua eta Elektrizitate-elektronika. Hiru ziklo hauen Erdi zein Goi Mailak eskaintzen ditu Lanbide Eskolak.

Baina ikasle gazteena ez ezik, helduen eta bereziki langabetuen aterpe ere bada Lanbide Eskola. Azken hauentzat ere, praktikoak diren ikastaroak ematen dira bertan.

KALITATEA HELBURU

Hezkuntza mailako kalitate sistemaren aldeko apostuan aintzindaria izan zen Usurbilgo Lanbide Eskola. 1999tik ISO 9002 ziurtagiriaren jabe da (bai hezkuntza arautuan zein ez-arautuan).

Lanbide Eskolak, noski, lotura estua du lan munduarekin. Lotura hau hiru arlo nagusi hauetan hezur-mamitzen da: ikasleen praktketan, enpresekin partekatutako proiektuetan eta enplegurako orientazio zerbitzuetan.



ENPLEGUAREKIN LOTUTAKO ORIENTAZIO ZERBITZUA JASOTZEN DUTE LANBIDE ESKOLAKO IKASLEEK.

ESKOLATIK LAN MUNDURA

Usurbilgo Lanbide Eskolak enpleguarekin lotutako orientazio zerbitzua eta laguntza desberdinak eskaintzen ditu (Langai kolokazio agentziarekin estuki harremanatuta dago).

Ikasleak jada martxan diren enprestan txertatzen laguntzeaz gain, ikasleei euren enpresak sortzen laguntzen die (Urrats bat proiektuaren bidez).

Gogoan izan aurrematrikula egiteko epea ekainaren 9a arte irekita dagoela.

Harremanetarako:

Telefonoak: 943 364600 / 943 361794

E-posta: eskola@lhusubil.com

ETORKIZUN BERRITU BATEN ALDEKO APOSTUA

Energia berriztagarrien inguruko ikasgaiak etorkizun handia du. Lanbide Eskolan ondo baino hobeto dakite. Jada martxan den gune honek prestakuntza-ikastaroak sustatu eta energia berriztagarriei buruzko on line ikastaro berriak hartzeko aukera ematen du.

Gainera, zentroko kide ez direnek baina gai hauetan interesatuta daudenek erakustaldi didaktiko-teknikoetan parte hartzeko aukera dute. Zentroa eta bertako ekipamendua aitzindari izan dira.

TX
rt
PINTX E EZI K
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

I n t e r n u n - z r n u n l k
BETARAKO BENTIK MAIOR...
Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

Inmobiliaria
ETXESAGASTI
Dilatzen ditugu:
-Etxeak
-Daserriak
-Lur Zatiak
Telf: 667 525 830

Patxi Vaquerizo, Lanbide Eskolako zuzendaria: “300 enpresarekin ari gara elkarlanean”

Formazioan dauden ikasleekin harremanatu ohi dugu Lanbide Eskola. Baina lanean edo langabezian dauden laguntzat ere, heziketa-gune interesgarria izan daiteke Usurbilgo Lanbide Eskola. Patxi Vaquerizo Lanbide Eskolako zuzendariak esan digunez, iaz, ikasleen %93,5ak lana aurkitu zuen.

Eskaintza akademikoa iazkoaren antzeko da, ezta?

Betiko heziketa zikloekin osatzen da gure eskaintza: Mekanika, Mantenimendua eta Elektrizitatea. Aurten, Erdi Mailako ziklo berri bat eskaintzen ari gara, “Hotza-Beroa” izenekoa.

Energia berriztagarrien inguruko eskaintza ere hor dago, gainontzeko ziklo ezberdinekin harremanatuta dagoena.

Langileek eta langabetuek ere badute lekurik Lanbide Eskolan.

Usurbilgo Lanbide Eskolak eskarmen-tu handia du hezkuntza ez arautuan, hau da, langile eta langabetuei zuzendutako hezkuntzan. 2000 pertsonatik gora hezi dira programa ezberdinen bitartez. INEM eta Eusko Jaurlaritzako Lan Departamenduaren laguntzaz burutzen ditugu ikastaro hauek. Mekanika eta Elektrizitatearen inguruko enpresetan, nagusiki, formaziodun jende premian dira.

